

# Tafallan, 2011ko irailaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagrario,  
Arejita, Adolfo,  
Coyos, Jean-Baptiste,  
Haritschelhar, Jean,  
Lakarra, Joseba,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sarasola Ibon,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi eta  
Zabaleta, Patxi

Erramun Osa, idazkariordea, eta Joseba Zabaleta, kudeatzailea, Patxi Galé eta Mikel Gorrotxategi euskaltzain urgazleak zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Miren Azkaratek, ahala P. Goenagari; Jose Irazu-Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari;

Beñat Oihartzabalek, ahala A. Arkotxari edo Jean Haritschelharri; Patxi Salaberri, ahala A. Iñigori; Joan Mari Torrealdaik, ahala A. Sagarnari; Xarles Videgainek, ahala J. Haritschelharri; Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 9,45ean hasi da Tafallako Udaletxeko Batzar aretoan ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

**1. Agurra eta hasierako oharrak.** Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, jasoriko ahalak adierazi ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, hitza idazkariordeari eman dio, beronek eguneko programa azal dezan.

## **2. Aurreko Osoko Batzarraren Akta (2011/07/22) onartzea.**

J. L. Lizundiak ohar bat egin du *Oranesado* erdal izen berriaren orde euskaraz *Oranerria* jar dadin, eta ontzat eman da. Ez da beste oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

### 3. Ageriko bilkuretako aktak onartzea.

E. Osa idazkariordeak 2010-09-24an, 2010-10-30ean, 2010-11-26an eta 2010-12-17an eginiko ageriko bilkuretako aktei buruz oharrak ba ote dagoen galdetu du, Jose Luis Lizundiak eta Xarles Videgainek egin dituzten oharrak txertatuz. Horiek horrela, bilera-agiriak onartu dira.

### 4. Onomastika.

#### 4.1. Iparraldeko ibaien izenak (III. zerrenda) onartzea.

Andres Iñigok hitza eman die Patxi Galé eta Mikel Gorrotxategi batzordekideei eta pantailan mapa proiektatuz, **Baigorri**, **Aldude** eta **Urepele** izenak aztertu dira. J. Harischelharrek gogorarazi du, halere, *Baigorri* zaharragoa dela *Urepele* baino eta izen horri lehentasuna ematea nahiko luke. Eztabaidatu ondoan, eta Patxi Galék esan duenaren bidetik, hots, aurreko erabakiaren aurka ez joateko, forma biak, **Al-dudeko Errobi** zein **Urepeleko Errobi** sinonimotzat onartu dira. Era berean **Arriugran** hobetsi da, frantsesezko *-d* kenduta. Bestetik, **Lauhiraze** izeneko erreka bi daude, **Lauhiraze Biduze** eta **Lauhiraze Ühaitza**. **Lauzeta**-ren ordez, **Auzet** onartu da, B. Coyosek jakin duenez, hasierako *l*- hori frantses artikulua delako. **Suhilandia** izena dela eta, Patxi Salaberrik egindako oharraren arabera, toponimo zaharra, berez, **Zuhilandia** da, eta **zubi- zubi**-ren ohiko aldaera izaten dela onarturik ere, ez da *-b*-dun aldaera dokumentaturik aurkitu eta, beraz, holaxe onartu da.

Zuberoako **Laserre/Zerra/Laserra** dela eta, Tx. Peillenek gogorarazi du inguru horretan «mendi» esateko **serra** hitza arrunta izaten dela. **Zerrako erreka** utzi da.

#### 4.2. Euskal Herriko ibaien izenak: lehendik onarturiko zerrendei oharrak.

Lehenagoko bederatzi zerrendak onartu badira ere, Onomastika batzordeak zenbait zuzenketa edo gomendio egin nahi ditu, A. Iñigok aurkeztuak, aurreko proposamena hobetzeko.

Horrela, **Rio Mayor**, **Agüera** ibaiaren alonimo gisa, **Riomayor** idaztea proposatzen da, Nafarroako beste zenbait izenen antzera (**Riosalado**, **Barrancogrande**...).

Bigarren zerrendan Eratsun eta Ezkurra herrien arteko ibai bat gehitzea proposatzen da:

**Basakaitz** izeneko.

Bigarren zerrendan, Saldias eta Eratsun arteko ibaia ere eranstea proposatu da: **Urtzuriko erreka**, beronen sinonimoarekin batera, hots, **Aizkolegiko erreka**.

Bigarren zerrendako erreka baten izena *Zeberia* gisa proposatu zen, baina, kasua azterturik, mugatzailearik gabea dela aurkitu da, eta beraz *Zeberiko erreka* gisa uztea proposatzen du batzordeak.

Proposamen berriek aurrekoekin inolako arazorik sortzen ez dituztenez gero, guztiak onartu dira.

## 5. Exonomastika, Ekialde hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia.

Euskaltzainburuak aretoa utzi behar izan du eta, tarte horretan, Aurelia Arkotxa buruordeak hartu du batzarraren gidaritza. Horrela, J. L. Lizundiari hitza eman dio.

### 5.1. Marokoko eta Mendebaldeko Saharako toponimia araugaia onartzea.

J. L. Lizundiak gogoratu du, Espainia eta Frantziako kolonia izandako toki horietan euskaldun ugari soldadu ibiliak direla, eta kasu batzuetan izan dela nolabaiteko euskal tradizioarik. Era berean, horko toponimoen arabiar grafia eta ebakeraz gainera, izenek espainieraz, frantsesez, ingelesez, italieraz eta alemanez duten transkribaketari ere begiratu zaiola, datu horiekin proposamen orekatua egiteko.

Edonola ere, ez da oharririk jaso eta, beraz, Marokoko eta Mendebaldeko Saharako toponimia araugaia onartu da.

**5.2. Palestina eta Israelgo toponimia araugaia aurkeztea.** Ondoren, J. L. Lizundiak Palestina eta Israelgo toponimo nagusien zerrenda aurkeztu du, azkenerako utzia zena. Hitza X. Kintanari eman dio. Beronek azaldu duenez, Exonomastika azpibatzaileak bai hebreerazko eta bai arabierazko alfabetoak euskarara letraldatzeko taulak ezarriak eta onartuak ditu. Taulok egokiak dira hizkuntza horietako hitz arruntak eta bertako pertsona zein leku-izenak jatorrizko hizkuntzan nolakoak diren jakiteko, bai eta maiztasun handia ez duten izenak transkribatzeko ere. Harere, eskualde horietako beste izen askok Biblian eta literaturan aspaldiko erabilera historikoa izan dute, eta jatorrizko hizkuntzetatik euskarara letraldatze mekaniko hutsa egiteak ulertu ezinezko egokitzapen pitxiak leharzke (*Jerusalajim*, *Jerikho*, *Akko*, *Tzizion* edo «*Aza*, adibidez, ohiko *Jerusalem*, *Jeriko*, *Akre*, *Sion* edo *Gaza* ezagunagoen lekuan).

Hori dela eta, hor ere, azpibatzaileak maiz nahiago izan du orain arteko tradizio biblikoa eta inguruko kultur hizkuntzak eredu hartzea. Besterik dira, ordea, gaurko toponimo berri zein zahar egokituak (*Tel Aviv*, *Beerxeva*, *Netanya*, *Jaffa...*), kasu batzuetan bai euskal tradiziozko era zaharra (*Kafarnaum*, *Genesaret*) eta bai oraingo izen ofizial berria (*Kfar Nahum*, *Kimmeret*) eskainiz, beste hizkuntzetan egin ohi denez.

Oharrak bidaltzeko azken epea: 2011ko urriaren 20rako.

### 6. Hiztegi Batuko bigarren itzuliko A-J tarteko sarrerak, onartzea.

Hitza A. Sagarnak hartu eta A-J zerrendari eginiko oharrak azaldu ditu xeheki. Alde batetik, J.L. Lizundiak *arabazozo*, *armagizon* eta *ezkerralde* hitzei zuzendurikoak, eta, bestetik, X. Videgainek *alababitxi*, *alportxa*, *anda*, *arreske*, *balentzia*, *bentosa*, *endaitz*, *gaizkata*, *gatzarri*, *harpa*, *hartz*, *hikaurtze*, *gaztigar* eta *hidoi* berbei buruzkoak.

Proposamenak, banan-banan ikusi eta aztertu ondoren, Euskaltzaindiak aurretik jada erabakiaren aurka ez zihoazen neurrian, ontzat eman dira.

Era berean, dokumentuak jaso eta gero, euskaltzain osoek eginiko proposamenak ikusita, *biribilgune*, *enbalditu* eta *etxepe* hitzetan ukitu batzuk egin dira, hitz horiek zehatzago definitzeko.

Esandakoari buruz euskaltzainen iritzia zein den galdetuta, A. Sagarnak Batzordetik ekarriko proposamena onartu da. Edonola ere, J. Haritschelharrek adierazi nahi izan du, X. Videgainek egindako ohar ia-denak onartu ez direnez gero, ez dakiela zein den haren iritzia, eta, beraz, haren orde ez duela iritzirik agertuko.

### 7. Plan Estrategikoa: 2012ko planak, behin behineko aurrekontuak eta jardueren diagrama berria aurkeztu eta berrestea.

Erramun Osak aurkeztua. Idazkariordeak Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko 2010.eko programa-kontratua hizpide izan du. Era berean, 2012ko plana egitean, hamaika erronka aipatu ditu, Euskaltzaindiak 2011ko maiatzean finkaturiko bost ildo estrategikoetan oinarrituak.

Ondoren, 2012ko urterako ardatz nagusiak berrikusi ditu: Ikerketa eta araugintza indartu eta sustatzea, Euskaltzaindiaren lana gizarteratzea eta gizartearekiko harremanak sendotzea, Akademiaren lana are nabarmenago agertzea, erakundearen barruko lana eraginkorrago bilakatzea, finantzaketa-bide berriak lortu eta, azkenik, lan ildoak eta ardatzak garatzeko eskema eta kronograma. Horren hurrengo, Euskaltzaindiaren batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen 2012 urteko plangintzaz aritu da.

Batzorde, lantalde eta egitasmoen emaitzak zein kontu emateak direla eta, errendapenak zehazkiago egitea beharrezkoa dela esan du idazkariordeak, maiz, orokorregiak direlako, ez baita erraza jakitea aldi bakoitzean aurrerapena zertan eta norainokoa izan den. A. Urrutiak 13. orrialdean falta den tituluz oharra egin du, *Euskera* agerkaria aurkibidean txertatzea falta baita.

Ondoren Joseba Zabaleta kudeatzaileak aurrekontuez hitz egin du, eta oraingo egoeraren berri orokorra eman. Bere kezka ere adierazi du, Euskaltzaindiak urtez urte pairatzen duen eta metatzen ari zaizkion murrizketengatik. J.L. Lizundiak begi onez ikusi du kudeatzailearen aurrekontua, murrizketei ondoko hilabeteetan aurpegia emateko.

P. Zabaletak bulegoak abuztuan irekirik mantentzeko komenientzia aipatu du, baina horretarako zailtasunak azaldu zaizkio, Akademiaren funtzionamendu egokirako langileen oporrak bateratu eta koordinatu behar direlako. Halere, opor-hilabete horretan Bilboko egoitzan beti gelditzen dela norbait argitu zaio.

## 8. Eskuartekoak.

**8.1. Euskaltzaindiaren hiztegia.** Euskaltzaindiak bereziki izendaturiko bi batzorde ahaldunduetako baten lanaldia jada iraungirik dago, eta bestearena, aldiz, urte honen amaieran bukatuko da. Dena den, 2012. urterako aurreikusitako lanak direla eta, beren lanaldia datorren urtea amaitu arte luzatzea proposatzen du Zuzendaritzak. Proposamena Osoko bilkuran hobetsi du.

**8.2. Ageriko bilkuretako bilera-agiriak:** gaur 2011. urteko urtarril-uztaila arteko Ageriko bilkuretako bilera-agiriak aurkeztu dira (2011-01-28, 2011-02-25, 2011-04-15, 2011-06-25 eta 2011-07-22), hurrengo Osoko bilkuran onartzeko. Iruzkina edo oharra egiteko epea: 2011ko urriaren 20rako.

**8.3. Donostiako Ikergunea.** Euskaltzainburuak azaldu du Donostian, Euskaltzaindiaren premietarako egokitu berri den Tolare basetxea jada prest dagoela. Horri *Luis Villasante euskararen ikergunea* izena ematea proposatu du, eta euskaltzainek horrelaxe onartu dute aho batez. Bertako aretoa eta gelak ere beste izen banarekin izendatzea proposatu da, baina, ideia onartuta, hori zehaztea hurrengo bilera baterako utzi da.

**8.4. Espainiako sari nazionalak.** Euskaltzaindiak, Espainiako literatura sari nazionalak emateko, proposaturiko epaimahaikoen zerrendarekin bere hautua egin du Kultura Ministerioak, eta Akademiari pertsona aukeratu horien izenak bidali dizkio. Jasoriko karta horretako zerrenda irakurri du Andres Urrutiak.

**8.5. Iruñeko udalaren literatura-saria idazle berrientzat.** Iruñeko udalak bi urterik behin egin ohi duen sariketarako bere ordezkaria izendatzeko eskatu dio Euskaltzaindiari. Zuzendaritzak, eskari hori jasota, 2011-09-26ko bileran Patziku Perurena jauna izendatzea erabaki zuela jakinarazi du euskaltzainburuak.

**8.6. Madrileko jardunaldiak.** Andres Urrutiak, halaber, jakinarazi du Euskaltzaindiak Etxepare Institutuarekin eta RSBAPEkin batera aurten Madrilen egiteko zituen jardunaldiak atzeratu egingo direla, eta, dirudienez datorren urteko otsailean edo martxoan burutuko dira.

### 8.7. Banatzeko liburuak.

Euskaltzainburuak gaur Tafallako ikastolan liburu hau aurkeztuko dela azaldu du: *El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha* (Jagon-13), Euskaltzaindiak ikastolekiko lankidetzan prestatua. Era berean, *Euskaltzaindia eta Nafarroa / Euskaltzaindia y Navarra* obraren 2. argitaraldia banatuko da.

### 9. Azken ordukoak:

**9.1. Urriko 28ko osoko batzarra.** Amaitzeko, Andres Urrutiak gogoratu du Euskaltzaindiaren urriko Osoko batzarra Donostian izango dela, goizeko 9,30ean Gipuzkoako Foru Aldundian.

**9.2. Ageriko bilkura.** Osoko batzarraren ondoan, euskaltzainak, autobusean, Euskaltzaindiaren ikergunera abiatuko dira, hots, Tolarera. Bertan Ageriko bilkura egingen da, ikergunearen inaugurazio ekitaldian. Horren ostean, berriz ere autobusean, hiriaren erdialdera itzuliko dira euskaltzainak.

Eta besterik ez dela, Osoko batzarra 12etan amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Tafallan, 2011ko irailaren 30ean

Tafallan, 2011ko irailaren 30ean, arratsaldeko 17:30ean, herriko Kultura Etxean, Nafarroa Oinez 2011 dela eta, antolatutako ekitaldien barruan Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita eta Patxi Uribarren.

Erramun Osa idazkariordea.

Patxi Juaristi Sustapen batzordeko kidea.

Gema Insausti Euskaltzaindiko langilea.

Bilkurari hasiera emateko, Rexu Urrutia ikastolako zuzendariak hartu du hitza; haren agurraren eta eskerroneko hitzen ostean, Anjel Iriso «Zaki» irakasleak «Garcés de los Fayos ikastolaren historia» izeneko mintzaldia eman du.

Hitzaldi horren bitartez, ikastola sortu zenetik gaur egun arte egindako urratsak, bizi izandako uneak, gatazkak, erronkak, lorpenak... horiek guztiak aipatu ditu Iri-sok. Besteak beste, Jorge Cortes Izal izan zena gogoan izan du, baita hasierako umeak, irakasleak, gurasoak eta era guztietako bultzatzaileak ere. Izan ere, «haien laguntza paregabea izan zuten eta, garai haietan ikastola sortzeko, Nafarroako beste ikastolek bezala». Gurasoei buruz, aldiz, hauxe esan du: «Haiek frogatu dute bazela, eta badela posible eskola bat zuzenean kudeatzea eta, horrexegatik, bete-betean inplikatzeko». Irakasleei dagokienez, besteak beste, beti erakutsi duten lan egi-

teko grina azpimarratu du: «Guk beti argi izan dugu nor garen eta non gauden: gure norabidea gauzak ongi egitea izan da eta ikastola anitza dela erakustea».

Era berean, Ikastolaren eredu pedagogikoa goraipatu du, eta honela laburbildu: «Ikastolak ezberdinak dira, berrikuntza asko ekarri dituzte eta beren ikasmoldea eredu bihurtu da askorentzat. Eleaniztasuna, ikasleekiko hurbiltasuna, gurasoekiko elkarlana, laizismoa (ikastola anitzetan, behintzat), oztopoak gainditzeko kemena, altruismoa, irakasleen motibazioa, proiektu berrietan parte hartzeko beldur eza, hobetzen jarraitzeko gogoia... presente egon dira eta daude gure eguneroko jardunean». Eta gaur egungo egoeraz mintzatu denean ere harro agertu da entzuleen aurrean: «Denok oso harro sentitu behar dugu lortu dugunarengatik: ikastolako guraso, irakasle, guraso ohi, ikasle ohi eta historian zehar lagundu gaituzten hamai-ka lagunek. Ikastola da, ezbairik gabe, gure inguruan sortu den euskal lorerik xar-mangarriena».

Horren ostean, Jose Mari Espartza «Euskara Tafallaldean» gaiaz mintzatu da. Hasteko, Jose Mari Jimeno Jurio ekarri du gogora –«gure hizkuntzaren historia osatzeko lan handia egin zuen»– eta jarraian azken urteotan historialariek bildutako datu berriak baliatu ditu, XVI. menderako Tafallan euskara galdua zegoen usteari aurre eginez. «Bertako ikertzaileek egindako azken aurkikuntzek adierazten digutenez, XVII. mendean, Tafallako herritar askok euskara zuten eguneroko hizkuntza».

Tafallan ez ezik, Erriberriko eskualde osora ere zabaldu ditu datuak, antzeko ondorioak azaleratuz. Erriberrin bertan, Puiun, Artaxoan, XVI. eta XVIII. mendeen arteko herritar asko eta asko, euskaldunak zirela frogatzen duten dokumentuak ugariak dira.

Horiek horrela, Espartzak ondorio garbia atera du: «Orain gutxira arte ezezaguna genuen dokumentazioari esker, badakigu Merindadea euskalduna zela orain ez dela asko. Euskararen mapa historikoa egiteke dago.»

Ondoren Andres Iñigo Jagon sailburu eta Nafarroako Euskaltzaindiko ordezkariak, hitza hartu du. Honek, *Euskaltzaindia eta Nafarroa* liburuxkaren 2. argitaldiaren aurkezpena egin du. Argitalpen honetan Euskaltzaindiak Nafarroan egin duen ibilbidea, Nafarroarekin lotura duten argitalpenak, euskaltzainak eta abar jasotzen dira. Ekitaldiaren ostean aleak banatu zaizkie bertaratu diren guztiei.

Amaitzeko, Andres Urrutia euskaltzainburuak azken hitzak esan ditu. Egunean zehar Akademiak Tafallan egin duen lana azpimarratu du. Izan ere, goizean Osoko bilkura egin da Tafallako Udaletxean; eguerdian, aldiz, Tafallako Garcés de los



Fayos ikastola bisitatu dute euskaltzainek. Era berean, *El movimiento de las Ikastolas*, Euskaltzaindiak eta Ikastolen Konfederazioak paratutako liburua aurkeztu da eguerdian Ikastolan, eta Nafarroa Oinez ekitaldian bilduko den diruaz, Tafallako Ikastola indartzeko eskuartean duten egitasmoaren berri ere jaso du Akademiak. Ikastolako aitzindarientzat, gurasoentzat, ikasleentzat eta irakasleentzat esker oneko hitzak izan ditu euskaltzainburuak, euskara hedatzeko egiten ari diren lana azpimarratuz eta eskertuz.

Ikastolako umeeek abesturiko kanta batekin amaiera eman zaio ekitaldiari arratsaldeko 19:15 direnean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria